

Euskaltzaindikoko ekipo zibila: Juan San Martin eta Jose Luis Lizundia

Patxi Zabaleta
Euskaltzain emeritua

Euskaltzain izandako Juan San Martinen jaiotzako 100. urteurrena dela eta, omenaldia, edo hobeki esateko, *oroimendia* egiten ari zaion honetan, bi edo hiru lekukotasun eman nahi nituzke harekin bizi izandakoez.

Nik ezagutu nuen Euskaltzaindia hartan, Juan San Martinek eta Jose Luis Lizundiak osatzen zuten *ekipoak* ezaugarri berri batzuk eman zizkion euskal hizkuntzaren erakundeari. Alde batetik, biak, ezberdintasunak ezberdintasun, politikaren oihura eta kulturarekin harremana zutenak ziren, eta biek ala biek aurrerakoi bezala jokatzeko izaten zuten kezka eta xede. Aurrekontuak eta ekonomiak gorabeherak eta egitasmoak azalpenaren aurrerakoitasunez erabaki eta jakitera eman behar zirela argi zeukaten pertsonak ziren, eta Euskaltzaindiari modu zibileko bideak bilatu behar zitzaizkiola bat zetozen.

Ezin da ahaztu San Martin eta Lizundiaren ekipoko aroan, Euskaltzaindiak bere egoitza bakarra Bilbon zeukala, orain bezala, baina euskaltzain buruak edo buruordeak Iparraldean edo Arantzazun eta autorik gabe zeudela, eta guzti horrek sortzen zuen egoera kudeatu behar zen.

Juan San Martin pertsonalki Eibar-ko bilera erdi-klandestino batean ezagutu nuen, Arrate bideko Bar El Hambre ostatuan egindako euskal idazleen bileran. 1970eko martxoaren 29a zen eta Euskal Idazleen Elkarteak deituta *Batasunaren kutxa* liburuan agertzen diren euskarazko idaz-moldeak onartzea zen helburua.

Erabaki hura bete behar zela zin egitea zeukan helburutzat bilera hark; eta, jakina, han bildutako asko, edo apaizak ziren edo apaizgai izan-
duak.

Batasunaren kutxa liburuko idazle sinatzaileak (Baionan eta Eibarren) 63 ginen; eta haietatik, oker ez banago, zortzi bakarrik ziren emakumeak. Idazle zerranda liburuan ber-

Juan San Martinek erantzun zion Arestiri ironia zorrotz eta sakona erabiliz: «Bakoitzak zin, sinesten duenaren izenean egin beharko du; adibidez, ni maoista naizenez gero, Maoren ideia eta idatzien izenean egin beharko dut zin...»

tan agertzen da, eta liburu hark (Lur argitaletxea, 1970, ekaina) adierazten duen bezala, batasuna bultzatzea zen helburua.

Gabriel Arestik zuzentzen zuen bilkura eta halako baten zera bota zuen: «Zin egitekotan egiazki baden zerbaiten gainean egin beharko litzateke eta, jakina, Jainkoaren izenenean zin egiteak ez luke balioko Jainkorik izan ez delako». Hitzak agian ez dira guztiz zehatzak, oroimenean gordetakoak besterik ez direlako, baina erdi-txantxetan edo erdi-serio Arestik bilatzen zuena hango batzuk zirikatzeko zen, zalantzarik gabe.

Juan San Martinek erantzun zion Arestiri ironia zorrotz eta sakona erabiliz: «Bakoitzak zin, sinesten duenaren izenean egin beharko du; adibidez, ni maoista naizenez gero, Maoren ideia eta idatzien izenean egin beharko dut zin...». Garai hura, Euskal Herrian maoismoa eztanda egiten hari zen aroa zen; ORT, PTE, OIC, MCE eta abar nola ahaztu? *Txinoak* alde batetik eta *troskoak* bestetik, asko mugitzen eta astintzen zuten taldeak ziren.

Han geunden gehienok bagenekien nontsu zebilen bakoitza eta bagenekien Juan San Martin ez zebilela txinoen tartean, baina bere ateraldi zorrotz eta mikatzak baretu eta distenditu egin zuen egoera eta, agian, irribarre murrizten bat sorrazi ere bai Arestiren eta beste batzuen ezipinetan.

Bilera bakean eta poztasunez bukatu zen eta bi egun beranduago Juan San Martinek hango «indargaztea» defendatu izanen zuen akademiaren Donostiako bilkuran.

Batasunaren bideak ez dira beti errazak izaten, eta batzuetan gogora ekartzen dute Iruñeko alkate batek esaten zuena: «Manifestaldi eder eta handi bat ikusita, haren buruan jarri nintzen, eta, atzera begiratu nuenean, denek jarraitzen zidatela ohartu nintzen».

Batasunaren kutxa izeneko liburu hark egileen izena *Euskal Idazleen Elkarte* dauka, eta azpi-izena *Mitxelaren Promesaren Pean*. Luis Mitxelena zen 63 sinatzaileetatik azkena, eta tartean zegoen, Juan San Martinen ondoan, beste askotan bezala, Jose Luis Lizundia.

EAEko hezkuntza ituna EAJk, EH Bil-duk, PSEK eta Podemos-Ahal Duguk hitzartu eta babestu dute. Parlamentuko arkuaren %90ak. Horrek ez du saihesten lkoitz Arrese parlamentariak akordioa desestabilizatu nahi duten sektore politiko eta mediatikoak daudela salatzea. Hitzarmenak EAEko gizartearen gehiengoaren borondatea



JIRA
Angel Erro

biltzen duela sinetsita dagoenari nekez entzuten zitzaizkion horrelako adierazpen ia konspiranoikoak. Beharbada kritikarekin kritiko agertzen direnek kalkulatuko zuten eskola publikoaren alde (gehiago egin behar-
ko zutelakoan) daudenak nekez izan daitezkeela euskal gizartearen osterantzeko %10a eta nekez ordezka dezaketela akordioaren kanpo gelditu direnek.

Agian azaldu beharko ligukete, zerbitzu publikoaren aldeko borroka fronte askotakoan, zergatik hezkuntzak izan behar duen salbuespen. Niri bururatzen zaizkizun zati arrazoi bat edo beste, baina halakorik ez dut entzuten baliatzen diren argudioen artean.

Osasun publikoaren alde bazaude, esaterako, osasun aseguru pribatuei soka emanen zenieke (gaixoak denon diruaz deribatuta, zeina kontzertazioen baliokidea izan baitaiteke) dena delako asurantzua mediku pribatuan euskarazko arreta osoa eskaintzen dizutelako, zerbitzu hura sare publikoan bermatzeko lehiatu beharrean?

Lotsa

Musikari bat ikusi genuen kalean akordeoia jotzen. Soinu kaxa erre bazeukan, eta, bolumena oso altu zeukanez, kalearen beste aldetik entzuten zen jo eta ke. Umeekin gindozan kalean gora, eta dantzan hasi nintzen. Ume batek barre egin zuen, eta besteak esan zidan ez daukadala lotsatik. Ezetz esan nion nik. Lotsa



BIRA
Onintza Enbeita

gehiago eman beharko ligukeela kalean negarrez ibiltzeak dantzan ibiltzeak baino, eta negar ere lotsarik gabe egin beharko genukeela. Pentsatzen dut, ordea, umeei etengabe esaten diegula sentimenduen adierazpen es-

kandalagarririk ez egiteko. Zuzenean ez bada inplizituki esaten diegu kalean ez dela dantzan egin behar, jendearen aurrean ez dela negarrik egin behar, barre ez dela nabarmen egin behar...

Agian, umeen naturaltasun horretatik ikasi egin behar genuke geuk: hartu-emanari guelta eman. Geure buruari galdetu noiz egin genuen kalean dantza azken aldiz, eta egin; egin lotsarik sentitu gabe. Zoriona erakusteak edo askatzeko beharra dugula igartzeak ez diezagula lotsarik eman. Ezta demaseko barreak ere: etorriko da bizitza negar eragitera! Bizirik egoteak ez liguke lotsarik eman behar, eta batez ere sentimendu muturrekoek erakusten digute bizirik gaudela. Autobusean irakurtzen goazela, motibo gutxi izaten dira burua altzarazten digutenak. Senti ditzagun lotsarik gabe.